

IBILI

ZERGATIK UME
KOSTATZEN ZAIZU
HORRENBESTE IBILTZEA
ZERGATIK UME
KOSTATZEN ZAIGU
HORRENBESTE IBILTZEA
ERRATZA OINETATIK
HIRU OSTIRALETAN
PASATU BEHARKO DIZUT
ERRATZA OINETATIK
HIRU OSTIRALETAN
PASATU BEHARKO DIZUT

JADA IBILTZEN ZARA
BIDE EGITEN DUZU

ZENBAT URRATS TXIKI
EGIN BEHAR DITUZU
HORREN GUTXI AURRERATZEKO
ZENBAT URRATS TXIKI
EGIN BEHAR DITUGU
HORREN GUTXI AURRERATZEKO
PAUSU ASKO EMAN BEHAR
PAUSU ASKO EMAN BEHAR
PITTIN BAT AURRERATZEKO
LASAITU SEMEA
GAUR "MAITAGARRIA"
AUTOBUSEZ BAIKOAZ

JADA IBILTZEN ZARA
BIDE EGITEN DUZU
HAU DENA ALDATUKO DA
IRAKATSIDAZU ORAIN
IREKI BA ATEAK

BIDASOA FUNDAMENTALISTA

BIDASOA FUNDAMENTALISTA
INOIZ EZ!

IRUNE ENTZUN KONTAKIZUN HAU
DANBORRA HARTU BAINO LEHENAGO
DUELA URTE BATZU GERTATU ZEN
AITZAKITZAT HARTUZ TRADIZIO
EMAKUMEEN ESKUBIDEAK ZIKINDU
ETA BORTXATU ZITUZTEN PROPIO
KOLPEAK ETA IRAINAK
GEHIENGOAREN PODERIO

BIDASOA FUNDAMENTALISTA
INOIZ EZ!

KIROL KAIA, LANGABEZIA...
NESKAK JAIAN BAINO NAHIAGO
HISTORIA ERREPIKATU ZEN, OROITU
NEGUREN "HIPOKRISIARI STOP!"
BURU ABLAZIOAZ AHALGETURIK
EGUN, PARTE HARTZEN DUGU DENOK
UNAI ETA LIBE ESKOPETAREKIN
MAIDER TXILIBITUAREKIN, ZER ARRAIO!

BIDASOA FUNDAMENTALISTA
INOIZ EZ!

AURRERITZIEN SUSTRAIAK
HAIN DIRA SAKONAK
ARRAZOIAREN BIDEA
LUZEA BEZAIN ZAILA DELA

BIDASOA FUNDAMENTALISTA
INOIZ EZ!

NIK BADITUT SEI

NIK BADITUT SEI FAXISTENTZAT
NIK BADITUT SEI FAXISTENTZAT

ERRE ZIDATEN ETXEBIZITZA
ALEMANIAKO HERRI BATETAN
POLIZIAREN AHOLKU JATORRA
IZAN ITZALGAILUA ESKURA
OSTERA EGITEN ARI NINTZEN PARISEN
FRONT NACIONALAREKIN TOPO EGIN NUEN
ETORKINA NAIZENEZ ZIPOKA NENBILEN
SENARA NINDUTEN BOTA

NIK BADITUT SEI FAXISTENTZAT
NIK BADITUT SEI FAXISTENTZAT

HAU DA GIZARTE BATEN ISTORIA
HONDORATZEN ARI DENA ETA
HONDATZEN ARI DEN BITARTEAN
ERREPIKATZEN DU BEHIN ETA BERRIZ
ORAIN ARTE DENA ONEZ ONEAN DABIL
ORAIN ARTE DENA ONEZ ONEAN DABIL
GARRANTZITSUA EZ DA JAUSALDIA
BAIZIK ETA LURRERATZEA

NIK BADITUT SEI FAXISTENTZAT
NIK BADITUT SEI ZORABIATU ARREN
NIK BADITUT SEI FAXISTENTZAT
NIK BADITUT SEI ZORABIATU ARREN

GAZTELUAK

AMESKAITZAK
EZ NAU UZTEN
LOKARTU ETA
BERRIZ JOTZEN

GAZTELUAK AMILTZEN

GOTORLEKU
ERRALDOIAK
HARKAITZ GORRIZ
ERAIKIAK

GAZTELUAK AMILTZEN

GALES ZITEKEEN
ESKOZIA
IRLANDA ERE
BAINA NONBAIT

NAFARROA
LITZATEKE
GURE AMA
NAFARROA

AMA LURRA
NEGARRETAN
GURE AMA
NAFARROA

GAZTELUAK AMILTZEN

LEPO MOZTUA

VALDEMORO, VALDEMORO / GARTZELAKO ZOMORRO
VALDEMORO, VALDEMORO / GARTZELAKO ZOMORRO
UMILAZIOAREN JOKUAN / HELDUENTZAKO MOZORRO
UMILAZIOAREN JOKUAN / HELDUENTZAKO MOZORRO
PRESOENTZAKO HIZKUNTZA / APALDURA ETA MANPORRO
PRESOENTZAKO HIZKUNTZA / APALDURA ETA MANPORRO
BIZIKI ARBUIAGARRI / BIZIKI ARBUIAGARRI
BIZIKI ARBUIAGARRI / BIHURTZEN DA MAMORRO

GILTZAPEKOAK BILDUTA / KONTUZ GERO MOZOLO
GILTZAPEKOAK BILDUTA / KONTUZ GERO MOZOLO
HAURDUN DAGOEN GAZTEAK / KRISTALAREKIN ZORROTZ
HAURDUN DAGOEN GAZTEAK / KRISTALAREKIN ZORROTZ
ZERRI BATEN ANTZERA / GELDITU DA KOKOLO
ZERRI BATEN ANTZERA / GELDITU DA KOKOLO
BIZITZA GUZTIRAKO / BIZITZA GUZTIRAKO
BIZITZA GUZTIRAKO / ZAURIMARRA LEPOKO

LEPO MOZTUA / FUNTZIONARI GAIZTUA
PATUAREN ESKLABUA / EMAKUME MALTZURRA (X 4)

HORMAK
SUNTSITU
HORMAK
ZEHATU

GARTZELERO ADITU
INOREN DUINTASUNA EZ MINDU
ISTORIO HONEK BADU
BERE IKASBIDEA, EZ AHAZTU

AIZKORAK ZORROZTU

8.000 URTEZ LURRALDE HONETAN
HERRIA GORPUTZA, HIZKUNTZA BIHOTZA
DINARRIA LURRA, EUSKARRI GAZTEDIA
KONPLEXUPEKO GARAIA ASPALDIAN PASA DA.
HORREGATIK ENTZUN ESANGO DIZUDANA
EUSKALDUN BERRIA NAUZU, BEGIRUNE OSOA
GU ERE ZERBAIT BAGARA, HITZ EGIDAZU EUSKARAZ
EUSKALDUNA BAZARA, HITZ EGIDAZU EUSKARAZ

AIZKORAK ZORROZTU

GUTAKO BAKOITZAK HAR DEZAN GOTORLEKUA
HIZKUNTZ AHUL ETA ZAHAR HONENTZAT,
GAL DITZAGUN LÖTSA ETA AURRERITZIAK
SENDO DADILA GURE HIZKERA
HAUR, AGURE ETA ANIMALIEKIN EZEZIK
ERABIL DEZAGUN GUZTIEKIN BERDIN.
BIZI DADILA BESTE HAINBESTE MENDETAN
IZAN DADILA LAN TRESNA ERAGINKORRENA.

EUSKARA MARA-MARA
HIRIALDERA HELDUKO GARA,
EUSKARA MARA-MARA
AKELARREAREN ALGARAZ,
EUSKARA MARA-MARA
KROMLETXAREN TAUPADAZ;
MENDEBALDEKO KULTURA
KOLOKAN JARTZERA,
ASKATASUNA BAITUGU
AUZOLAN HONEN XEDEA

EZ NAIZ SENTITUKO
ARROTZ NIRE HERRIAN
ETXEAN IBILTZEKO ?
%30REN ARTEAN ?
MUNDU ZABALEAN
BADA GURE MINTZOA
BIZITZAREN ALDE BASATIA
WILD SIDE EUSKARA

BAGARA, UDARA, ALGARA, BRIGADA
DARDARA, EUSKARA, MASKARA, TAUPADA
ARMADA, ASANBLADA, BALADA, PATXADA
IZARRA, ZIRRARA, IKARA, GEBARA

SAHARA, GRANADA, ATXAGA, ARABA
ABIADA, GRANADA, ZARTADA, GALTZADA
LURKARA, BULTZADA, ISLADA, ALABA
EZABA, BOLADA, ILADA, LANDARA
BAGARA, ZIRRARA, GALTZADA, TAUPADA
BAGARA, BRIGADA, EUSKARA, ALABA

AIZKORAK ZORROZTU

EUSKALDUNA BAZARA
HITZ EGIDAZU EUSKARAZ

AIZKORAK ZORROZTU

EZTI POTOA

KLITORIA HITZ POLITA DA
GALDU ESATEKO LOTSIA
DIHUKATU NAHI DUT, GEREZIA
ZEIN EDERRA DEN EZTI POTOA

BESTE HITZ EMAKUMEAREN SEXOAZ
ZIKINKERJETAN ERORI GABE?
SATSUA, ZENTZU TXARREKOA ?
GASTRONOMIA EROTIKOA ATSEGIN?

UTZIDAZU ZUREA DASTATZEN
ZEIN GOXOA DEN EZTI POTOA
SEXU ENTSALADA PROBATU?
DENETARIK DASTA DEZAGUN

UTZIDAZU ZUREA DASTATZEN
ZEIN GOXOA DEN ZURE EZTI POTOA
LORATEGI LURRINDATUA
LOREAREN BIHOTZA

IRRIBARRE BERTIKALA, MARRUBIA, EZPAINAK
DELIZIEN LAKUA, TXIMELETA, MUXIKA, KABIA
PARADISU LORATSUA, BRANKA, JADEZKO ATEA
GOZOAREN LARROSA, SUMENDIA, ALTXOR HEZEA

ZUKU FESTA
SEXU ASKEA
SENTIMEN POZA

PENTSAMENDU BAKARRA

LAN INDARRA SALTZEN DUT
PLUSBALIOA OPARITUZ
IDEOLOGIAK AGUR
ESPLOTA NAZAZU
IDEOLOGIAK AGUR
ESPLOTA NAZAZU

PENTSA?
PENTSAMENDU BAKARRA
PENTSA?
PENTSAMENDU BAKARRA

200 KORPORAZIO
MULTINAZIONALPEAN
EKONOMIA ETA
INFORMAZIOA
MUNDUA USTIATZEN
GIZAKIA LERROTZEN

DOMU
DOMU BASATIA
DOMU
DOMU METAKETA

MERKATU JAUNGOIKOA
GLOBALIZAZIOA
HUTSIK DUT BURMUINA
EMAIDAZU BAZKA
HUSIK DUT BURMUINA
PIZTU TELEBISTA

PENTSA?
PENTSAMENDU BAKARRA
PENTSA?
PENTSAMENDU BAKARRA

LUCREZIA

GIZATERIAREN ALDEKO TOPAKETEETAN
EZAGUTU ZINTUDAN. BERLIN.
NEOLIBERALISMO HITZA TRABATZEN ZITZAIGUN
ASKORI ELKARTASUN HITZA BEZALA

IZKIRIATU NUEN ZIRRIBORRUAK
BALIZKO LIBURU BATERAKO
ZURE IZENA ZUEN TITULUA. EKINTZA GARATZEKO
PARADA :
KREUZBERG-KO INBISS-A

LUCREZIA

K.O.B.EN ONDOAN, KEBAB-A JATEN
TABERNARI KURDOAK TEA
ESKAITZEN DIGU IRRIBARRETSU. BI
HOMOSEXUAL TURKIAR
FEREKATZEN ARI DIRA GOIBEL

PARISTARRA ZARA, AMA ALJERIARRA
GARTZELAN DAGO. EKINTZA ZUZENA.
BANKU BAT ATRAKATZEAGATIK, 12 URTEKO
ZIGORRA
ZU BAKARRIK EZ ZAUDE ORDEA

LUCREZIA

DEMO ZAPATISTAN, MIATU GINTUZTEN
BENJAMINEN EPAIKETAN ERE
BARTZELONAN EUSKALDUNAK LAGUN, OMEN
ZITUEN EXTREMEÑOA
AMA LAZTANTZEKO IRRI GREBARENA

MUNDUA ASALTOZ HARTU NAHI DUGUNOK
INGURATU ETA MAITE ZAITUGU
ZURE BEGIAK BI ILARGI DIRA. IKUSIKO DUGU
ELKAR DIO
HELBIDERIK GABEKO CHE POSTALAK

LUCREZIA

ESNATU LURRA, ESNATU

NEGU GORRIA EZ DA ORAINDIK BUKATU
UDABERRIA HURBIL DELA IRAGARTZEKO
JOAREDUNEN ZINTZARRIAK ENTZUTEN DITUGU
NEGUKO LETARGIA ASTINDUZ

GONAZPIKOA, BINAKA ERRENKADAN
ARDI LARRUAK, LURRA IRATZARTZEKO
TTUNTURROA BURUAN ETA ZALDI-ISATSA
IZPIRITU TXARRAK UXATZEKO

ESNATU LURRA, ESNATU

ZINTZARRIEN HOTSAK, BARNEAK KOLPATUZ
IHAUTERIAREN HASIERA ADIERAZTEN
PAGADI ETA ARITZADITAN ARITZEN DIREN
MOTOZERRAK GELDIARAZTEN

ISILTASUNA, BASOAN NAGUSITZEAN
INOIZ MOZTU EZIN IZAN ZUTEN ENBORREAN
SARTURIK GELDITU ZITZAIEN AIZKORARI
BEGIRA, LORATU ZAIO KIMU BAT

ESNATU LURRA, ESNATU

KIMUAK JAIO, BIZITZA LORATU
HASTERA DOA IZATEAREN ZIKLOA
AIAKO HARRIAK ERE ESNATUKO DIRA
BEREN INDARRA BARNERATZEN HASIA NAIZ

HIL ZITZAIGUN LAGUN BAKOITZARENGATIK
LANDATU GENUEN ZUHAITZA BERPIZTU DA
LURRA OHARTZEKO UDABERRIA DATORRELA
IHAUTERIETAN MOZORROTUKO GARA

ESNATU LURRA, ESNATU
NEGU GORRIA AGURTU, UDABERRIA AGERTU
ESNATU LURRA ESNATU
KIMUAK JAIO, BIZITZA LORATU
ESNATU LURRA, ESNATU

EL DERECHO DE VIVIR EN PAZ

EL DERECHO DE VIVIR, POETA HO CHI MIN
QUE GOLPEA DE VIETNAM A TODA LA HUMANIDAD
NINGUN CAÑON BORRARA EL SURCO DE TU ARROZAL
EL DERECHO DE VIVIR EN PAZ

INDOCHINA ES EL LUGAR MAS ALLA DEL ANCHO MAR
DONDE REVIENTAN LA FLOR CON GENOCIDIO Y NAPALM
LA LUNA ES UNA EXPLOSION QUE FUNDE TODO EL CLAMOR
EL DERECHO DE VIVIR EN PAZ

BIZITZEKO BIDEAK, POETA HO CHI MIN
GIZATERIA OSOA KOLPATZEN DU VIETNAMDIK
EZ DU INORK KENDUKO, ARROZTIAREN ILDOA
BAKEAN BIZITZEKO BIDEA

Y YO CON NUESTRA CANCION, QUE ES FUEGO DE PURO
AMOR
ES PALOMO PALOMAR, OLIVO DEL OLIVAR
ES EL CANTO UNIVERSAL, CADENA QUE HARA TRIUNFAR
EL DERECHO DE VIVIR EN PAZ

LA, LA, LA.....

KANTU UNIBERTSALA DA
IRABAZTEKO KATEA
BAKEAN BIZITZEKO BIDEA

EL DERECHO DE VIVIR EN PAZ